

A man with dark, curly hair, wearing a blue suit, white shirt, and black tie, is looking directly at the camera with a slight smile. He is holding a single playing card, the Ace of Diamonds, in his left hand. The background is plain white.

ODEI DOMINGO

Magoa, aktorea, umorista, aurkezlea eta showmana.

Txikitatik antzerki eta interpretazioagatik zaletasun handia garatzen du eta, 6 urterekin bakarrik, magia ikuskizun batean boluntario bezala atera eta gero mago izan nahi duela erabakitzen du. Hortik aurrera, antzerki ikastaro desberdinak egiten ditu eta, disziplina desberdinetako ezagutzak handitzeko, nazioarteko ilusionista askoren konferentzietara joaten hasten da.

2014an, 18 urterekin bakarrik, bere lehen urte profesionala 40 emanaldi baino gehiagorekin ixten du.

Espainiako Ilusionismo Elkarteko kide 2011tik, 2014an bere ikuskizun propioak ekoizteko eta banatzeko asmoarekin bere konpainia propioa sortzen du. Bere ikuskizunen helburua argia da: kluxe eta iraganeko estereotipoetatik aldentzen dituen eta ilusionismoaren arteak hain beharrezkoa duen aurrerapausoa baimentzen duen ideiak sortzea, beti magia eta umore konbinazioa aurkeztuz.

Bere proposamen propioetatik aparte, konpainia desberdinekin koprodukzio eta kolaborazioak egin izan ditu, hainbat ikuskizun familiarretako protagonista izanda, hala nola, "Niko, banpirotxiki bat" musikala non, magia egiteaz gainera, musikal familiarhonetan abestu, dantzatu eta interpretatzen zuen.

Konpainia, ekoizpen eta ekitaldi desberdinentzako aholkulari magikoa izan da. Honetaz gain; telebista kate, udaletxe, erakunde etamaila nazionaleko enpresentzako proposamenak pertsonalizatu ditu. Bere enpresentzako ideia pertsonalizatuak Frantzian, Portugalen eta Alemanian burutu dira.



Artista MAGIALDIA 2018, 2019, 2020, 2021 eta 2022 jaialdietan, nazioarteko magia jaialdi garrantzitsuenetariko bat. Gainera, maila nazionaleko magia, zirku, antzerki eta umore jaialdi desberdinetako parte-hartzailea izan da.



URAREN SEKRETUAK formatu txikiko proiektu hezigarriarekin 12 probintzietako 100 eskola baino gehiago bisitatuak izan dira non, magia bitartez, ingurumena zaintzeari buruz kontzientziazten da.



SENTSAZIOAK, eszenaratze harrigarria duen formatu handiko ikuskizuna. Iruñeko Gayarre Antzokian estreinatua.



MAGIC MELODY, 30 musikaririk osatutako banda batek zuzenean musikatutako magia ikuskizuna. Ekoizpen familiarra non magoa ez da ezinezkoa egiten duen bakarra.

CÍA MAGO HODEI MAGOA

Magia eta umorea, proposamen berritzaile eta erritmo altuarekin konbinatuta, emaitza originala bermatzen duten ikuskizunak.

Formatu txiki, ertain eta handiko ekoizpenak; proiektu hezigarriak eta ideia pertsonalizatuak. Beraien lana urteroko 100 emanaldi baino gehiagotatik eta 20.000 ikusle gaineratik bermatua dago.

Konpainian ideak guztiz garatzen dituzte; efektu magikoen sorkuntzatik bai artistikoki bai teknikoki kalitate altuko eta dotorea den emaitza lortzeko beharrezkoa den alderdi teknikoraino.

EKOIZPEN PROPIOAK

2014 - Hodei magoaren magia / 2015 - Ordu magikoa / 2017 - Ilusioaren indarra / 2018 - Uraren sekretuak
2018 - Magic Melody / 2018 - Tutti-magia / 2019 - Ezinezkoaren logika / 2020 - Harritzearen abilezia
2021 - Eskolan magia / 2022 - Sentsazioak